



## FORU DEKRETUA

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saila  
Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza  
Esp. zk.: 1/19

### **Onestea Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.**

2019-2023 agintaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari esleitu zaizkio, besteak beste, eginkizun eta lan arlo hauek: teknologia garapena, enpresa berrikuntza eta lehiakortasuna, ekonomiaren sustapena eta enpresen lankidetzeta, lurraldeko logistikaren garapena eta sustapena, RIS3 strategiaren zabalkundea lurraldean, industria eta zerbitzu azpiegituren garapena, enpresa ekintzailletza, nazioartekotzea eta kanpo merkataritza, eta ordenamendu juridikoan adierazten diren gainerakoak, zeinak Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak gauzatuko baititu.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak ezarritakoari jarraituz, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak aurreikusi du dekretu hau onestea, zeinetan jasotzen baitiren zuzendaritzaren eskumeneko eremuan lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik guztiagatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau



## **XEDATZEN DUT**

Lehenengoa.- Onestea Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Bigarrena.- Indargabetzea Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretua, zeinaren bidez onespina eman baitzitzaie Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrei, eta indargabetzea, halaber, hura aldatu zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretua.

Gasteiz.

Diputatu nagusia

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta  
Demografia Erronkaren Saileko diputatua

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren  
zuzendaria



## **ERANSKINA**

### **EKONOMIA GARAPENAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARITZAK LEHIAKETA BIDEZ EMATEN DITUEN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI OROKORRAK.**

#### **1.- XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA**

1.1.- Dekretu honen xedea da finkatzea Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak; laguntza horiek eskuragarri dauden aurrekontu kredituen kontura eta zuzendaritzaren eskumenen eremuan emango dira.

1.2.- Honako lerro hauetan emango dira dirulaguntzak:

- Lehiakortasuna hobetzea eta berrikuntza
- Enpresak sortzea
- Nazioartekotzea
- Enpresa kudeaketa hobetzeko programa
- Ekonomia sustatzea
- Zuzendaritzaren eskumeneko eremuko beste edozein dirulaguntza lerro

1.3.-Deialdi horiek arautuko dituzte oinarri arautzaile hauek, hauetan ezartzen diren zehaztapenek eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

#### **2.- IZAPIDETZE AURRERATUA ETA URTE ANITZEKO DIRULAGUNTZAK**

2.1.- Deialdia ebazpena emango den aurrekontu ekitaldiaren aurreko ekitaldi batean onetsi ahal izango da, baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago dirulaguntza ematearen ondorioz sortzen den gastua estaltzeko Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrean, edo, dirulaguntza emateko ebazpena onestearen ondorioz gastu konpromisoa hartuko den ekitaldiaren ondorengo ekitaldiko aurrekontu proiektuan. Bigarren kasu horretan, deialdiko gehieneko zenbateko osoa gutxi gorabeherakoa izango da; beraz, deialdian berariaz jaso beharko da dirulaguntzak emateko baldintza izango dela kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematea ebazten den unean. Azkenean onetsitako aurrekontu kreditua hasieran balioetsitako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak onetsitako deialdian aplikatu ala ez erabaki ahalko du, beste deialdi bat onetsi behar izan gabe.

2.2.- Era berean, dirulaguntzen deialdia baimendu ahalko da, baldin eta laguntzak emateko ebazpenari dagokion ekitaldiaren ondokoetan egotz daitekeen gastua badu. Kasu horretan, deialdian guztira emango den gehieneko zenbatekoa adierazi beharko da, urterokoetan banatuta, emango diren dirulaguntzen ondoriozko gastua egitea aurreikusten den unea kontuan hartuta.



### 3.- ONURADUNEN BETEKIZUN OROKORRAK

3.1.- Onuraduntzat hartuko dira dirulaguntza emateko oinarri den jarduera egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan ezarritako debekuen eraginpean ez izateaz gain, deialdi bakoitzaren ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

3.2.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. eta 13. artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. eta 13. artikuluetan ezarritako baldintzez gain, hauek ere bete beharko dituzte eskatzaileek, zuzendaritzak dirulaguntzak esleitu eta ordaindu aurretik:

- Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean edukitzea. Hori frogatzeko, erakunde eskudunek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, salbu eta 58/2004 Foru Dekretuak aldatutako 18/1997 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hori frogatu beharretik salbuetsita badaude. Dena dela, aukera teknikoek eta baimenek bidea ematen badute, Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren kontu geratuko da ziurtagiri horiek Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari eskatzea. Laguntza eskuratzeko eskaera aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea aipatutako ziurtagiriak behar beste aldiz eskatzeko.

- Eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero, legez eratuta egon beharko du, eta, gainera, diruz lagunduko den jarduerak haren xede edo helburu sozialekin zuzeneko lotura izatea eskatuko zaio.

3.3.- Ez dira onuradun izango Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan araututako arau hausteren bat dela eta zehapena jaso dutenak, ez eta Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak arau hauste larri edo oso larriak egiteagatik gaitasungabetzea aurreikusten duen kasuetan eroritakoak ere.

3.4.- Aurreko deialdietan Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak sustatutako dirulaguntzak jaso arren diruz lagundutako proiektuak edo jarduerak gauzatu ez dituzten eskatzaileak ezingo dira izan onuradun, salbu eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren aburuz proiektu edo jarduera horiek ez gauzatu izanaren arrazoiak behar bezala justifikatuta badaude.

3.5.- Deialdi zehatzetan, onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarreak, ondasun erkidegoak edota beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juridikorik izan ez arren, baldin eta proiektu, jarduera edo jokabideak burutzeko gauza badira edo dirulaguntza emateko arrazoi den egoeran badaude.



#### 4.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

4.1.- Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka izango da. Salbuespenez, dirulaguntzaren xedea egoki betetzeko ez bada posible norgehiagoka prozedura erabiltzea, lehia askeko prozedura erabiliko da, eta hori dagokion deialdian adierazi eta arrazoitu beharko da.

4.2.- Lehiaketa bidezko esleipen prozedura deialdi eta hautaketa prozesu bakarraren bidez edo urtean zehar hainbat hautaketa prozedurako deialdi ireki bidez egin ahal izango da, baldin eta egiten den deialdian hala zehazten bada. Deialdia irekia bada, hautaketa prozeduretan aplikatu gabe utzitako zenbatekoa hurrengo ebazpenetan esleitu ahal izango da.

#### 5.- ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA

5.1.- Deialdian adierazten den moduan aurkeztuko dira eskaerak. Aurkezteko modu hauek izan daitezke:

- a) eskura emanda, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo ituna duten udalen erregistro orokorretan
- b) Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan

Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan ezartzen duena aplikatuko da.

5.2.- Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak egiten dituen ereduetan aurkeztu beharko ditu eskaerak dirulaguntzaren onuradun izan nahi duen pertsonak berak edo behar den moduan, eta eskatzen diren agiri osagarriak ere aurkeztu beharko ditu. Eskaera ereduak eskura egongo dira aipatutako zerbitzuan eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian.

5.3.- Deialdi bakoitzean zehaztutakoa izango da eskaerak aurkezteko epea, eta gutxienez hamabost egunekoa izango da, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

5.4.- Aurkeztutako eskaerekin batera ez badira eskatutako agiriak aurkezten edo uste bada emandako informazioa ez dela nahikoa, hamar egun baliodun izango dituzte interesdunek eskatzen zaizkien agiri horiek aurkezteko. Eskatutako agiriak ez badira bidaltzen arestian adierazitako epean, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta, beraz, laguntza ukatuko zaio.



5.5.- Eskaera bat behar bezala betetzat emango da baldin eta eskatutako agiri guztiak erantsi bazaizkio eta Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz proiektuaren gaineko informazioa nahikoa bada hura aztertu eta ebaluatu ahal izateko.

5.6.- Ahal dela, jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira. Posta-banaketa egin behar bada, Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak, eskabidean ageri den helbidea erabiliko du. Eskatzailearen zeregina izango da Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari datuetan izandako edozein aldaketaren berri berariaz ematea, batik bat eskatzailearen helbide aldaketari edo bere banku kontuko datuei buruzko aldaketarik izan bada.

5.7.- Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak laguntzaren eskabide ereduaren identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei emango die baliozkotasuna erakunde eskatzaileak.

5.8.- Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du bai oinarri orokor hauetan, bai kasuan kasuko oinarri espezifikoen ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5.9.- Behar beste informazio eskatu ahalko dio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak eskatzaileari, emandako datuak egiaztatze laguntza emateko edozein izapidetze fasetan, bai eta diruz laguntzeko proiektuari edo jarduerari buruzko behar beste dokumentazio osagarri ere.

## 6.- ORGANO ESKUDUNAK ETA EBAZPENA DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURAN

6.1.- Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua izango da instrukzio organoa, eta behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz.

6.2.- Norgehiagoka araubidean emandako dirulaguntzak:

6.2.1.- Oro har, norgehiagoka bada dirulaguntza emateko prozedura, balorazio batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak. Batzordea horrela egongo da osatuta:

Batzordeburua: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Batzordekidea: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikari bat.

Dirulaguntza lerroaren ezaugarriak direla eta balorazio batzordeak osaera orokorraren ordeza jakina izan behar badu, deialdian adieraziko da.



6.2.2.- Balorazio batzordeak aurkeztutako proiektu edo jardueren eskabideak baloratuko ditu, laguntzen gaineko deialdi bakoitzean ezarritako irizpideei jarraikiz, eta haien arteko lehenetasuna ezarriko du. Lehenetasun hori oinarri hartuta, esleipenak proposatuko dira eskatutako proiektu edo jarduera bakoitzeko, aipatutako irizpide horiek aplikatu ondoren baloraziorik onena lortu dutenen artean, deialdian zehaztutako mugarekin eta eskuragarri dagoen kredituaren barruan. Muga hori gainditu ondoren, eskatutako proiektu edo jarduerak ezesteko proposamena egingo da, nahiz eta deialdietan ezarritako helburu eta betekizun orokorretara egokitu.

6.2.3.- Esleipen prozeduran, onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza puntuazio hurrenkerako hurrengo proiektu edo jarduerari esleitzea erabaki ahalko du dirulaguntza ematen duen organoak, beste deialdi baten premiarik gabe, baldin eta onuradunak uko egiteagatik nahikoa kreditu eragin bada ezetsitako eskaeretak bati behintzat aurre egiteko.

6.2.4.- Aurrekontua agortzen den puntuazio tarteari dagozkion esleipenak geratzen den gerakina tarte horretako eskaeren artean hainbanatuta egingo dira, diruz lagun daitezkeen proiektu edo jarduera bakoitzaren aurrekontuaren arabera.

6.2.5.- Halaber, deialdi bakoitzean finkatuko dira diruz lagundu daitezkeen aurrekontuei aplikatuko zaizkien dirulaguntza ehunekoak, esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

6.2.6.- Salbuespenez, deialdietan hala aurreikusten bada, onartu ahal izango da onuradunen artean hainbanatzeko aukera, eskatutakoaren eta dirulaguntzarako jarritako gehieneko zenbateko osoaren arteko gaindikinari dagokion ehunekoan.

6.2.7.- Balorazio batzordeak balorazioaren emaitzak bidaliko dizkio instrukzio organoari, ebazpen proposamena egin dezan.

6.3.- Lehia askea denean dirulaguntza emateko prozedura, eskaerak jaso ahala banatuko dira funtsak, baldin eta osorik badaude eta deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, eta harik eta aurrekontu zuzkidura agortu arte.

6.4.- Organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emango du, eta behar diren betekizunak edo baldintzak adieraziko ditu.

6.5.- Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoari jarraikiz jakinaraziko dira ebazpenak.

6.6.- Oro har, eskaerari administrazioaren isiltasun bidez ezezkoa eman zaiola esan nahiko du, baldin eta 6 hilabete igaro eta ebazpenik eman ez bada; izan ere, ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epe hori ezartzen du Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Dekretuak 23. artikulua 4 apartatuan.

## 7.- DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKOA ETA ZENBATEKO BANAKATUA



7.1.- Deialdiak finkatuko du dirulaguntzetarako zenbat diru dagoen gehienez, bai eta zer aurrekontu partidari egotziko zaizkion ere.

7.2.- Deialdi batean zenbait aurrekontu partida daudenean, saileko diputatu titularrari ematen zaio ahalmena, balorazio batzordeak egindako proposamena kontuan hartuta, aurrekontu partida bakoitzari esleitutako funtsak berriro banatu ahal izateko, baina, betiere, deialdiaren aurrekontu osoa errespetatu beharko da.

7.3.- Guztirako dirutik eskatzaile bakoitzari eman dakioken dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu hautatutako proiektuaren edo jardueraren kostu osoaren zenbateko aurreikusia; hala ere, deialdietan finantzazio publikoa kostu osoaren proportzio jakin batera mugatu ahal izango da, eta beharrezkoa joz gero, eskatzaile edo jarduera bakoitzari eman dakioken gehieneko dirulaguntza zehaztu ahal izango da.

7.4.- Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko, eskatzaileak aurkeztutako proiektu edo jarduera bakoitzerako zenbatetsitako kostua hartuko da oinarri, eta, horretatik, deialdiaren baldintzetara egokitzen ez diren edo deialdiaren helburuetara behar besteko mailan egokitzen ez diren partidak edo jarduerak kenduko dira; hori guztia, Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren irizpenen arabera. Horrela lortuko da diruz lagun daitekeen aurrekontua. Dirulaguntza kalkulatzeko, dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontuari balioespen deialdiak zehaztutako dirulaguntzaren ehunekoa aplikatuko zaio, baita aurreko paragrafoan aipatzen diren gehieneko mugak ere.

7.5.- Laguntzen eraginkortasuna bermatze aldera, deialdi bakoitzean finkatuko da diruz lagundu daitekeen proiektu edo jarduera bakoitzeko eman beharko den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, bai eta proiektu eta jarduerak dirulaguntza jaso ahal izan dezaten aurrekontu diruz lagungarriak izan behar duen gutxieneko zenbatekoa ere.

## 8.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

8.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzen deialdietan ezarritako epearen barruan egiten direnak.

8.2.- Dirulaguntzaren helburua kontuan hartuta, deialdiek proiektu edo jarduerari egotz dakioken zeharkako kostuen portzentajea ezarri ahal izango dute, eta zenbatekoa hura baino txikiagoa izanez gero, ez da beharrezkoa izango onuradunak justifikazio osagarria aurkeztea.

8.3.- Diruz lagun daitezkeen proiektu, jarduera, gastu edo ordainketak egiteko epea deialdi bakoitzean zehaztuko da.

8.4.- Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruzko arauetan kontratu txikietarako finkatutako zenbatekoak baino handiagoa bada eta, betiere,





hirugarrenekin kontratatzen bada, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen, hala xedatzen baitu 11/2016 Foru Arauaren 29. artikulua. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkaturan ondasun edo zerbitzuok eman edo egiten dituen hainbeste entitate ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkeztutako eskaintzak dirulaguntzaren eskaeran azaldu beharko dira; eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz aukeratuko da haien artean eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik onena ez bada, egindako aukera berariaz arrazoitu beharko da memoria batean.

8.5.- Deialdian azpikontratatzeko aukera dagoen ala ez eta azpikontratazioen mugak ezarriko dira, zeinak % 100ekoak izan ahalko baitira, eta, betiere, dirulaguntzei buruzko lege ezarritako betekizunak eta debekuak errespetatuko dira.

8.6.- Halaber, laguntzak onuradun gehiagorengana irits daitezten, deialdiak edo Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak aurrekontu mugak ezarri ahal izango dituzte jardura edo gastu zehatzetarako, baina muga horiek ez dute galarazi behar laguntzen eraginkortasuna.

8.7.- Ezingo dira diruz lagundu dirulaguntza lerro bereko aurreko deialdi batean dirulaguntza jaso zuten eta gauzatu ez ziren gastuak, salbu eta Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren ustez gauzatu ez izanaren arrazoiak behar bezala justifikatu badira.

## 9.- EMANDAKO LAGUNTZA ONARTZEA

9.1.- Oro har, laguntza ematearen jakinarazpena jaso ondoko hamabost eguneko epealdian onuradunak ez badio hari berariaz uko egiten, ebazpenean ezarritako baldintzekin onartzen duela ulertuko da.

9.2.- Deialdian ezarri ahalko da onuradunak esleipenaren baldintzak berariaz onartzeko modua.

## 10.- ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoari jarraikiz, organo eskudunaren ebazpenak administrazio bidea amaituko du eta haren aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Gasteizko Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

## 11.- JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA



11.1.- Deialdietan aurkeztutako eta onetsitako jardueren gutxieneko gauzatze portzentajea ezarri ahalko da, eta onuradunak hori betetzen ez badu, dirulaguntza osoa gal dezake, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren ustez ez betetze hori ez badago nahikoa justifikaturik.

11.2.- Emandako dirulaguntzak justifikatzeko, erakunde onuradunek frogatu egin beharko dute ezarritako baldintzak bete dituztela, bai eta egindako jardueren kostua eta hura finantzatzeko gainerako diru sarrerak ere.

Justifikazio agiriak aurkezteko epea deialdi bakoitzean zehaztuko da eta muga egunak izango da; beraz, agiriak aurretik aurkeztu beharko dira.

11.3.- Deialdi bakoitzean ezarriko da zein agirik osatuko duten justifikazio kontua. Horrez gain, zehaztu ahal izango da agiri horietako zeintzuk aurkeztu ordeztu daitezkeen ROACen izena emanda dagoen auditore batek emandako txostena, deialdian bertan zehazten diren ondorioetarako.

11.4.- Dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, deialdietan justifikazio kontuaren eredu sinplifikatuak ezarri ahal izango dira, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan ezarritakoarekin bat.

11.5.- Deialdiek diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko moduluak ezarri ahal izango dituzte, baldin eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 76. artikuluan 1 apartatuan ezarritako betekizunak betetzen badira. Moduluak ezarri gero, onuradunak moduluen bitartez egiaztatutako gastuen inguruko liburuak, erregistroak eta kontabilitate eta merkataritza agiriak aurkezteko salbuespena besterik ez dute izango.

11.6.- Langileen gastuen eta profesionalen egindako fakturen kasuan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura atxikitako zenbatekoak sartu direla frogatu beharko da; dena den, dirulaguntza aurretik ordaindu ahal izango da. Atxikipenak Arabako Foru Aldundian egin badira, haren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta justifikazio txostena egitea.

Dirulaguntza ordaintzen bada eta ez bada atxikipenak ordaindu direla justifikatzen horretarako ezarritako epean, dagokion zenbatekoa itzultzeko agindu ahal izango da.

11.7.- Justifikazio agiriak deialdian zehazten den moduan aurkeztu beharko dira. Agiriak telematikoki aurkeztu behar badira, zehaztutako agiriez gain, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren erakunde webean dagoen ereduaren arabera, adierazteko espedienteari erantsen zaizkion fitxategiak jatorrizkoen benetako irudia direla, erakunde onuradunak dauzkala eta eskatzen zaizkionean Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela.

Justifikazio agiriak aurkezteko lekua deialdian dirulaguntza eskaerak aurkezteko adierazitako leku bera izango da; edonola ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.



11.8.- Justifikazioa ezarritako moduan eta epean aurkeztu beharko da, ezinbestez, onuradunaren aldeko ordainketaren obligazioa aitortu ahal izateko eta ordaindu ahal izateko, gastu aurreratuek baimendutako kasuetan salbu.

Ordainagiriak onartutako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokion kopurua baliogabe utziko da.

11.9.- Deialdian ezarritako epea pasata, ez bada justifikazio agiririk aurkeztu, dagozkion diru kopuruak baliogabetuko dira, eta Dirulaguntzen Legean ezarritakoaren arabera bidezkoak izan daitezkeen gainerako erantzukizunak eta zehapenak egotzi ahal izango zaizkio onuradunari.

Behar besteko justifikaziorik aurkezten ez bada edo ez bada nahikoa justifikazio aurkezten, ordainketa aurreratuan jasotako zenbatekoak itzultzeko espedientea hasiko da, bidezkoa bada.

11.10.- Horrez gain, Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak in situ bisitak egin ahal izango ditu, egiaztatzeko diruz lagundutako jarduerak gauzatzen ari direla.

## 12.- ORDAINKETAK

12.1.- Oro har, dirulaguntza ordaindu aurretik onuradunak frogatu egin beharko du dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera deialdi bakoitzean ezarritako moduan egin duela.

12.2.- Hala eta guztiz ere, deialdi bakoitzean aurretiazko ordainketak egiteko aukera jaso ahal izango da, bai eta konturako ordainketak ere, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 32. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Deialdiek aurretiazko ordainketak eta konturako ordainketak egiteko aukera jasotzen badute, horiek egiteko baldintzak eta mugak ere ezarriko dituzte eta, beharrezkoa bada, baita bermeen araubidea ere.

Ez da onartuko dirulaguntza berrien konturako aurrerakinik ordaintzea, baldin eta onuradunak ez baditu ezarritako epean justifikatu edozein laguntza lerrotan jaso dituen beste aurrerakin batzuk.

## 13.- DIRULAGUNTZA ALDATZEA

13.1.- Ahalik arinen eta idatziz (gutuna, faxa, mezu elektronikoa etab.) jakinarazi beharko zaizkio Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari honako hauek: dirulaguntzak emateko kontuan hartutako baldintzen edozein aldaketa, diruz lagundutako jarduera edo proiektua ez amaitzea edo egindako benetako gastua hasierako aurrekontua baino nabarmen txikiagoa izatea. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposatu ahal izango du Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak.

13.2.- Aurreko paragrafoan azaldutako inguruabarrak ez jakinaraztea dirulaguntza galtzeko arrazoiak izan ahalko da.



## 14.- DIRULAGUNTZEN ALDIBEREKOTASUNA ETA BATERAGARRITASUNA

14.1.- Deialdietan dirulaguntzen aldiberekotasun eta bateragarritasun araubidea ezarriko da.

14.2.- Beste laguntzaren bat lortzen bada dirulaguntzen eskaera aurkeztu ostean, berehala eman beharko zaio horren berri, idatziz, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari, eta hark emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposa dezake.

14.3.- Aurrekoa gorabehera, laguntzek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Deialdietan ezarritako laguntzek errespetatu egingo dituzte unean unean indarrean dauden Europako Batzordearen erregelamenduetan ezarritako “minimis” arauak.
- Dirulaguntzak beste erakunde batzuek emandako dirulaguntzekin bateragarriak direla zehaztuz gero deialdian, dirulaguntza ematen duten gainerako erakunde publiko zein pribatuen laguntzen zenbatekoak ezingo du diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren kostua gainditu. Deialdi bakoitzean ezarriko dira garapena eta mugak.

14.4.- Dirulaguntzaren eskatzaileak aurretik bateraezina eta helburu bererako den beste bat jaso baldin badu, hala adierazi beharko da eskabidean. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpenak ondorioak sortzeko baldintza gisa, ebazpenean adierazi beharko da onuradunak aurretik jasotako dirulaguntzei uko egin behar diela, bai eta, hala dagokionean, jasotako diru publikoa itzuli behar duela ere.

14.5.- Dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzultzeko eskatuko da, baldin eta Arabako Foru Aldundiak jakiten badu onuradun batek emandakoarekin bateraezinak diren beste dirulaguntza bat edo batzuk jaso dituela eta ez diela uko egin behar den bezala.

## 15.- EZ BETETZEA

15.1.- Baldin eta erakunde onuradunek laguntza deialdietan eta oinarri orokor hauetan araututako baldintzaren bat betetzen ez badute, dirulaguntza baliogabetu egin daiteke, eta dirulaguntza dagoeneko ordainduta badago, onuradunak nahitaez itzuli beharko du, indarrean dagoen legearekin bat etorritik Foru Aldundiak zehaztutako eran.

15.2.- Arabako Foru Aldundiak lege akzio egokiak gauzatu ahalko ditu, deialdietako laguntzei buruzko administrazio ebazpenetan ezarritakoaren ez betetze larriak gertatzen badira, edota ziurtagiri eta aitopren faltsuak aurkeztuz gero.

## 16.- DIRULAGUNTZA ITZULTZEA



16.1.- Honako hauetan ezarritako kasuetan, jasotako dirulaguntza itzuli beharko da: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araubidea onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

16.2.- Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko diru sarrerak izango dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenaren abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

## 17.- BABESAK

Deialdietan Arabako Foru Aldundiaren babesa eta dirulaguntza jaso izana adierazteko betebeharra ezarri ahalko da, bai eta dirulaguntza aldi berean finantzatzen duen edozein Europako funts adierazteko betebeharra ere, eta horiek irudi korporatiboaren eta protokoloaren gainean ezarritako argibideetara egokituko dira.

## 18.- GARAPENA ETA EGIAZTATZEA

Garapen Ekonomikoaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatu titularrak hurrengo deialdiak eta, hala badagokio, oinarri hauek garatzeko egokitzat jotzen dituen ebazpenak emango ditu, dirulaguntza izapidetuko duen unitate organikoak horrela eskatuta, eta onuradunak emandako datuak eska ditzake eta haiek benetakoak direla eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen dela egiaztatu. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute egin dituzten jardueri buruz Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

## 19.- ERANTZUKIZUNAK

Onuradunek beren gain hartuko dituzte jarduera edo programak gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak, eta indarrean den legediak jarduerak edo programak gauzatzeko galdegiten dituen baimen guztiak eskatu beharko dituzte.

## 20.- DATU PERTSONALAK BABESTEIA

20.1.- Prozesu honetako datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiaren jardueren erregistroko "Enpresentzako dirulaguntzak" fitxategian tratatuko dira. Fitxategi horri buruzko argibide guztiak hemen daude: [ERREGISTRORAKO LOTURA](#)



20.2.- Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua izango da tratamenduaren arduraduna.

20.3.- Oinarri hauen bidez araututako dirulaguntzak eta laguntzak kudeatzeko eta estatistikak eta azterlanak egiteko baino ez dira erabiliko sartutako datu pertsonalak. Zortzi urtez gordeko dira.

20.4.- Datuak administrazio publikoei eta Arabako Foru Aldundiko Sailei bakarrik laga ahal izango zaizkie, honako hauetan araututako lagapenen bitartez: gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

20.5.- Datuen titularrak edozein unetan baliatu ahal izango du datuetan sartu, haiek zuzendu, deuseztatu, aurka egin eta mugatzeko eskubidea. Horretarako, eskaera egin beharko du, dela bertaratuta, dela bidalketa eta jasotzea bermatzea ahalbidetzen duen beste edozein bideren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorraren bulegoetan (Probintzia plaza z.g., behea, 01001 Gasteiz, Araba).

20.6.- Interesdunak datu horiek fitxategian sartzeari uko egiten badio, ez du jasoko dirulaguntzarik.

## 21.- INTERPRETAZIOA

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdiak garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro hartzeko.

## 22.- ESKAEREN DOITZE TEKNIKOAK

22.1.- Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak deialdi batean jasotako eskaerak beste batera aldatu ahal izango ditu ofizioz, eskatzaileak eskaera egokia ez den deialdi batera aurkeztu badu, nahastuta edo ezjakintasunagatik, edo jardueraren edo proiektuaren izaeragatik, baldin eta deialdiak aztertze eta ebazpen fasean badaude oraindik.

22.2.- Dirulaguntza jaso ahal izango dute, deialdirako onesten den eta erabilgarri dagoen aurrekontuaren konturako, dirulaguntza lerro bereko aurreko deialdira aurkeztu ziren proiektu eta jarduerak, baldin eta Administrazioaren beraren jardueraren ondorioz ez badira era egokian likidatu.

## 23.- DESLOKALIZAZIOA ETA ENPRESA ESKUALDATZEA

23.1.- Enpresen deslokalizazioari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Aginduaren 43., 44., 45. eta 46. artikulua aplikatuko dira.



Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin batera (EGEF) finantzatutako zatiari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EE) Erregelamenduaren 71. artikuluan xedatutakoa beteko da.

23.2.- Oro har, enpresa deslokalizatu dela joko da honako bi baldintza hauek betetzen badira:

a) Dirulaguntza ordaindu eta ondorengo hiru urteetan enpresaren jarduera Araban amaitu edo nabarmen murrizten bada.

b) Aldi berean edo arestiko egoeraren aurreko edo ondorengo hiru urteen buruan, jarduera utzi duen erakundeak berak, edo talde berekoa den edo hari lotuta dagoen beste erakunde baten bitartez, beste toki batean jarduera bera garatzen badu.

23.3.- Horrez gain, dirulaguntzaren onuradunak, dirulaguntza jasotzearekin batera, konpromisoa hartzen du enpresa ez eskualdatzeko dirulaguntza jasotzen duenetik bi urte pasa baino lehen. Baldintza hori betetzen ez badu, dirulaguntza itzuli beharko du, salbu eta Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren zerbitzuak justifikazio txostena ematen badu.

#### 24- ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorren Araubidea onesten duen uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araubide Ekonomikoaren abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean dagoen aurrekontu antolamenduaren foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

#### 25.- INDARREAN SARTZEA

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.